

Año LXXXVI. urtea

291 - 2025

Enero-abril

Urtarrila-apirila



Príncipe de Viana

SEPARATA

2024ko nafarroako
euskal literatura

Ángel Erro Jiménez



Sumario / Aurkibidea

Príncipe de Viana

Año LXXXVI • n.º 291 • enero-abril de 2025
LXXXVI. urtea • 291. zk. • 2025eko urtarrila-apirila

ARTE / ARTEA

La Casa del Papa o Casa de las Pinturas en Pamplona: promotores y artífices María Jesús García Camón	9
---	---

HISTORIA

Sistema jasangarri baten ezarpena Urdazubi eta Zugarramurdiko baso eta mendietan antzin erregimenean, menpekotasun, zailtasun eta gatazken gainetik Álvaro Aragón Ruano	47
--	----

Acerca de la autoría de las <i>Bases bajo las cuales Navarra y las Provincias Vascongadas seguirán adheridas a la monarquía de Carlos V</i> , publicadas en 1838 Javier Díaz de Cerio Fernández	77
--	----

El licenciado Joan de Nantes, abad de Aldaba (1595-1636) Josetxo Músquiz Pérez de Zabalza	95
--	----

LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2024 / 2024ko LANAK ETA EGUNAK

Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales y jurídicas, leídas en 2024 (Según la Base de datos Teseo del Ministerio de Educación)	127
---	-----

Autores navarros en castellano, año 2024 Mikel Zuza Viniegra	141
---	-----

Noticias sobre etnografía, folclore y cultura tradicional en 2024 David Mariezkurrena Iturmendi	145
--	-----

Sumario / Aurkibidea

Ser artista en Navarra. ¿Una profesión posible? Mireya Martín Larumbe	159
2024ko nafarroako euskal literatura Ángel Erro Jiménez	167
UPNAPASS: un pasaporte digital para recoger la formación complementaria del estudiantado universitario Cristina Bayona Sáez	175
Investigación y divulgación del patrimonio cultural navarro en 2024 Yolanda Cagigas Ocejo	183
Tiempos verbales. Cultura audiovisual como referente para un futuro imperfecto Marga Gutiérrez Díez	191
Entrevista a Alfredo Sanzol, Premio Príncipe de Viana de la Cultura 2024 Alicia Ezker Calvo	203
Discurso pronunciado por Alfredo Sanzol en la entrega del Premio Príncipe de Viana de la Cultura 2024 Alfredo Sanzol	217
Currículums	219
Analytic Summary	223
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	225

2024ko nafarroako euskal literatura: 46 liburu eta 19 galdera inozo

Ángel Erro Jiménez
Escritor/Idazlea
angerro@yahoo.es

DOI: <https://doi.org/10.35462/pv291.9>

Urtean urteko euskarazko literaturak Nafarroan eman duenaren errepassoa egiteko ardura hartu edo, hobeki esan, eman didaten hamarkada honetan beti ibili naiz zalan-tzatan nire lana ongi bete ote dudan, sartu beharreko libururik kanpoan utzi ote dudan edo Nafarroako euskal literatura zer den ebazteko baliatzen ditudan irizpideak zuzenak ote diren. Idatziok ez ditut beti euskara hutsez egin, eta gauza jakina da (edo laster ikusiko dugunez ez da horren gauza jakina) euskal literaturaren definizioa hizkuntza batetik bestera alda daitekeela. Erdaraz arituz gero, literatura navarra en euskera erabili beharko nuke? Literatura vasca de Navarra? Euskaldun jendeak, nafarrak izan ala ez, arras, seguruenik gehiegi, maite ditu auzi hauen inguruan trabatzea. Nik ez hainbeste; agian horregatik orain arte ez dut hona inoiz ekarri, eta zein liburu eta zein egile barru hartu beharko nukeen erabakitzeko tenorean beti eskuzabal jokatzan saiatu naiz.

Aurten, baina, bururatu zait mundu guztia –batez ere gazte jendea– liluratuta daukan adimen artifizialeko bot konbertsazionalak hemendik aurrerako deliberoak hartzen lagundu ahalko zidala. Aitortu behar dut ez naizela jaioa trepet horretan oso jaioa.

Euskal literatura zer den galdetzen hasi naiz. Euskaraz egin eta euskara txukunean jaso dut erantzuna:

(a) Euskal literatura zer da?

Euskal literatura euskaraz idatzitako literatur lanen multzoa da, edo Euskal Herrian (Euskadi, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria) sortutakoak, euskal nortasuna, historia, tradizioak eta mundu-ikuspegia islatzen dituztenak. Poesia, narrazioa, antzerkia eta saiakera bezalako generoak barne hartzen ditu, Erdi Aroko testuetatik hasi eta gaur egungo literaturaraino. Ahozko tradizioa (bertsolaritza), beste kulturekiko eragina

eta euskararen biziberritze ahaleginak nabarmenak dira bere garapenean. Euskaraz ez ezik, euskal gaiei lotutako gaztelaniazko edo frantsesezko lanak ere sar daitezke, beti ere euskal kulturaren ikuspegitik.

Galdera bera errepikatu dut (b), gaztelaniaz oraingoan, erantzuna berdina izanen ez zela uste izanda, eta bien arteko aldeak zerbaitean lagunduko zigula. Harritu naiz aurrekoaren bertsio itzulia baino ez dela (makinak hizkuntza bakarrean «pentsatzen» duela ondorioztatu dut, eta hizkuntza hori ez dirudi euskara denik; agian ez da gaztelania ere). Ez dut beraz hona aldatuko. Bide batez esanda, esan beharra daukat ez nagoela guztiz ados emandako definizioarekin, baina ez naiz chatbotarekin ezбайдan hasi, ezertaz konbentzitu edo kontraesanak begietaratu nahian.

Tira, edo pixka bat bai. Jarraian Nafarroako euskal literatura zertan datzan galdetu diodalako (c):

Nafarroako euskal literatura Euskal Herriko Nafarroa eskualdean sortutako literatur lanetan oinarritzen da, batez ere euskaraz idatzitakoetan, nahiz eta gaztelaniazkoak ere sar daitezkeen euskal nortasun eta gaiei lotuta badaude. Nafarroako testuinguru kultural, historiko eta soziala islatzen du, bertako tradizioak, paisaiak eta bizipenak azpimarratuz. Erdi Aroko ahozko tradizioetatik (bertsolaritza barne) hasi eta idatzizko literatura modernoaraino doa, hala nola poesia, ipuinak, eleberriak edo antzerkia.

Nafarroan euskararen erabilera historikoki mugatua izan da zenbait eremutan, baina XX. mendetik aurrera, euskararen normalizazioarekin eta literatur mugimenduekin (adibidez, Euskaltzaindiaren lana edo idazle garaikideen ekarpenak), Nafarroako euskal literatura indartu egin da. Idazle nabarmenak, esaterako, Etxahun-Iruri edo Koldo Izagirre, eta tokiko gaiak lantzen dituzten lanek (Nafarroako paisaia, historia edo gizarte-erronkak) osatzen dute bere ezaugarri nagusia. Literatura hau Euskal Herriko testuinguru zabalagoaren parte da, baina Nafarroaren berezitasunak (adibidez, bere aniztasun linguistikoa eta kulturala) bereizten du.

Ezin izan diot barreari eutsi, eta ez bat ez bi Koldo Izagirre Nafarroako euskal idazlea ote den galdetu diot itsumustuan (d). «Ez, Koldo Izagirre ez da Nafarroako euskal idazlea», izan da erantzuna, «Gipuzkoakoa baizik». Jarraian Izagirreren biografiaren laburpen txikia dator, zuzena ote den egiaztatzeko pazientzia izan ez dudana. Baten batek kargua hartuko dit zergatik ez diodan Etxahun-Iruri zuberotarraren nafartasunaz ere galdetu. Edonola, adibideei kasu emanez, batek esan lezake ez dagoela Nafarroan aipatzeko moduko euskal idazlerik.

Badaezpada, makinei galdera sinpleak egin behar zaizkiola aintzat hartuz, zertaz ari ginen zedarritzen saiatu naiz:

(e) Orduan zer eskualde hartzen ditu barnean Nafarroako euskal literaturak?

Nafarroako euskal literatura, bereziki, Nafarroa Garaia (Espainiako Nafarroa Foru Komunitatea) eta, estuago lotuta, Nafarroako euskara hiztunen eremu geografiko eta

kulturalari dagokio. Hau da, euskaraz idatzitako edo euskal nortasuna islatzen duten lanak barne hartzen ditu, Nafarroako hainbat eskualdetan sortutakoak (...). Nafarroako euskal literaturak, beraz, Nafarroa Garaiko lurralde osoa hartzen du barne, baina bereziki euskara bizirik egon den edo berreskuratzen ari den eremuetan du oinarri sendoa.

Nafarroa Garaia esplizituki aipatu du eta nik jarraian galdetu diot (f) Nafarroa Beherea Nafarroa ere baden zehazteko. Mordoilo juridiko-historiko batekin erantzun dit, zeina ez baitut hona aldatuko, baina laburbilduta ondorioztatu dut adimen artifizial honek ez duela begi onez ikusten nik, orain arte egiten saiatu naizen moduan, seigarren merindadeko idazleak ere txosten honetan sartzea. Horrek, beraz, saihetsiko luke nik 2024an ondoko nafar idazlee euskaraz sortutako lan hauek zerrendatzea:

(1) *Mesfida zaitez*, Bea Salaberri Larrerena, Susa argitaletxean plazaratua. Bertako protagonista, Laurendia, Nafarroa Behereko landa eremutik Baionara ikastera joanda, inguruarekin batera aldatuko zaizkio jakin nahiak, piztuko kontzientzia politikoa eta sortuko ordura arte bururatu ere egin gabeko zalantzak. (2) Piarres Aintziart (Heleta, 1937) filosofian lizentziadunak idatzitako eta Maiatz argitaletxean plazaratutako *Filosofian ibiliz* izeneko saiakera. (3) Itxaro Bordaren *Itzalen tektonika* poesia liburua, Susan argitaratua.

Beste urte batzuetan buruan ibili dudana kezka da zer egin itzulitako literatura-rekin. Nire ustez, zalantzarik gabe parte hartzen dute tokian tokiko literatur sisteman, hura aberasten dute. Horra, beraz, galdera (g): «Itzulitako literatura literaturatzat har daiteke?». Baiezkoan dago nire adiskide berria: «Bai, itzulitako literatura literaturatzat har daiteke (...). Itzulpena literatur lan baten berrinterpretazio sortzailea da, eta jatorrizko obraren balio estetiko, kultural eta emozionala beste hizkuntza batera eramateko prozesu artistikoa dakar (...). Itzulitako literatura ez da jatorrizkoaren kopia zehatza; testu berri bat sortzen du, itzultzailearen interpretazio eta erabakien arabera moldatua. Horregatik, batzuek diote itzulpena jatorrizko lanaren “bigarren bizitza” dela, eta bere baitan literatur balio propioa duela. Euskal literaturaren kasua: Euskal literaturaren barruan, itzulpenek (adibidez, klasiko unibertsalen edo egungo lanen itzulpenak) garrantzi handia dute, euskararen normalizazioan eta literatura-unibertso propio baten eraikuntzan lagundu dutelako». Ez nuke nik hobeki esan. Hala ere, parrastada horri «hala ere» bat gehitzen dio jarraian: «Hala ere, euskal literatura propioa dela esateko, batzuek lehentasuna ematen diete euskaraz sortutako jatorrizko lanei, nahiz eta itzulpenak osagarri gisa onartzen diren». Batzuen kontua baino ez bada, ez dut arazorik ikusten hona ekartzeko 2024ean nafar itzultzaileek euskarari ekarritako ondoko lanak:

Santi Leonék itzulitako Boris Pahor-en *Nekropolia*, 1967an eslovieneraz idatzitako eleberri autobiografikoa (4), non Pahorrek gerraren eta kontzentrazio-esparruen izugarrikeriak kontatzen dituen, Alberdania argitaletxean argitaratua. *Detaile xume bat*, Adania Shiblik idatzia eta gurera Aitor Blanco itzultzaileak Igela argitaletxean ekarria (5), eleberri bat bi garaitan zentratua, 1949ko udan, Israelgo estatu sortu berriak destakamentu militar bat bidaltzen duenean Negev basamortura Egiptorekiko hegoaldeko muga zaintzeko, eta, bestetik, zenbait hamarkada

geroago, XXI. mendearen hasieran, emakume palestinar batek gertakari horri buruzko artikulu batekin topo egiten duenean. Fernando Reyk itzulitako *Barren-gaizto* (6), *Barkamena existituko balitz bezala* (7) eta *Irakurketaren aldeko manifestua* (8), hurrenez hurren Beatrice Salvionik, Mariana Travaciok eta Irene Vallejok jatorriz italieraz edo gaztelaniaz idatzitakoak eta Txalaparta, Erein eta Pamiela argitale-txeetan argitaratuak, hurrenez hurren. Itziar Diez de Ultzurrun Sagalàk itzulitako *Neguko oparia* album ilustratua ere (9) aipatu beharko genuke hemen. Hala nola, Jon Alonsok euskararatutako Manuel Vazquez Montalbanen poemen antologia (10), Susa argitaletxeko Munduko Poesia Kaierak bilduman bildua, edo *Idazketa labana bat da*, Annie Ernaux-ena, Katakraken agertua eta Leire Lakastak itzulia (11). Amaia Apalauza Olloren bi itzulpen ere agertu dira aurten: Angela Davisen *Abolizioa* (*Politika, praktikak, promesak*) (12) eta Montserrat Roigen *Gerezi-denbora* (13), Katakra eta Consonni argitaletxeetan atereak. *Amaiur 1522. Inperioak erasotzen du* Cesar Oroz umoreegilearen eleberri grafikoa ere atera da euskaraz, ez dakit zehazki nork itzulia, baina egile nafar baten itzulpena ere hemen sartzekoa zelakoan nago (14). Gauza bera esan liteke Mikel Reparazen *Amerikaren arrakalak* liburuaz ere (15), 2020an kaleratutako eta Euskadi Saria lortutako *Las grietas de América* landa-ikerketaren euskarazko bertsio handiagotuaz, alegia.

Batez ere, behin beste galdera batekin (h) ziurtatu dudanean haiek ere liburu horien nolabaiteko egileak direla:

Itzulitako obra baten egile nor da? Jatorrizko idazlea bakarrik edo itzultzailea ere bai?

Itzulitako obra baten egiletza galdera konplexua da, eta erantzuna ikuspegiaren arabera aldatzen da. Oro har, egiletza bi alde hauei aitortzen zaie, baina rol desberdinekin (...). Itzultzailea testuaren berrinterpretatzaile sortzailea da, jatorrizko lana beste hizkuntza eta kultura batera egokitzen duena. Itzulpen-prozesuan, itzultzaileak erabaki estilistikoak, kulturalak eta linguistikoak hartzen ditu, eta, beraz, itzulitako testuaren egiletza intelektualak partekatzen du neurri batean. Itzulpen bikain batzuetan, itzultzailearen lana arte-lan independente gisa ere baloratzen da. Adibidez, euskarara itzulitako klasiko batean, itzultzailearen izena (esaterako, Xabier Mendiguren edo Koldo Izagirre) aipatzen da, bere ekarpena nabarmentzeko.

Hau tema *chatbot* honek Koldo Izagirrerekin duena. Ez diot berriz galdetu nafartzat ote duen, baina bai ezarri nahi izan diot tranpa txiki bat, oraingoan gaztelaniaz formulatuta: (i) «En qué se diferencia un escritor navarro y un escritor vasco?». Bereizketa absolutua egiterik ez dagoela esan du, «ya que ambos pueden solaparse, especialmente en el caso de la literatura en euskera o de temática vasca». Gero bi orrialde beteko erantzun korapilatsu eta aski errepikakorreari lotu zaio. Zehaztasun handiagoaren bila galdera bera beste modu batez egin diot (j):

Nor kontsidera daiteke nafar idazle?

Nafar idazletzat kontsidera daiteke Nafarroako Foru Komunitatean (Nafarroa Garaian) jaioa den, bertan bizi den edo Nafarroarekin lotura estua duen idazlea, bere lanak idazten dituen hizkuntza (euskara, gaztelania edo beste) edo lantzen dituen gaiak edozein direla.

Biziki poztu nau erantzun honek. Bat nator nafar idazlea zer den (Nafarroa Garaira mugatzeko auzia kontrobertsiala gorabehera). Hala egin izan dut nik urte hauetan guztietan, eta aurten ere hala egiteko asmoa nuen, ondoko liburuak hona ekarrita:

Jon Arretxek 2024ean argitaratu (edo berrargitaratu ere?) dituen *Zenbaki gorriak* (16), *19 kamera* (17), biak Touré afrikar jatorriko detektibearen sailekoak, eta *Harresi handirantz* gazteentzako literaturatzat jo daitekeena (18), hirurak Erein argitaletxean. Pello Lizarralderen *Lanbroa*, hau ere Ereinen agertua (19). Edo Bakarne Atxukarro, Izaskun Zubialderen batera ondu duen *Herri inauteriak* (*Haurrentzako ipuinak*), Aitziber Alonsoren irudiekin (20).

Dena den, makinaren koherentzia falta ezagututa adibide zehatz bat eman nahi izan diot, ea gauza bera erantzuten dit. Aurreratzen dizuet ez duela lehengo gauza bera erantzun.

(k) Orduan, Pello Lizarralde nafar idazlea da, ezta?

Ez, Pello Lizarralde ez da nafar idazlea, jatorriz gipuzkoarra da. Zumarragan (Gipuzkoa) jaio zen 1956an. Hala ere, 1980az geroztik Iruñean (Nafarroa) bizi da, eta bertan euskara irakasle gisa lan egiten du. Bere lan literarioak, hala nola Larrepetit (2002) edo Argiantza (2020), euskal literaturaren barruan kokatzen dira, eta askotan Nafarroako iparraldeko paisaiak edo testuinguruak agertzen dira bere eleberrietan, adibidez, Larrepetit nobelan, non ihesaldi bat Nafarroako iparraldean kokatzen den. Horregatik, bere lanek Nafarroarekin lotura dute, baina jatorriagatik eta bere identitate literarioagatik euskal idazle gisa sailkatzen da, ez nafar idazle gisa bereziki (...). Lizarralderen kasuan, Nafarroan bizitzeak eta bertako errealitateak bere lanean agertzeak lotura bat sortzen du, baina ez da nahikoa nafar idazletzat jotzeko, bere jatorria eta ibilbide literarioa Euskal Herri osoaren testuinguruan kokatzen baitira. Beraz, euskal idazlea da, Nafarroan bizi dena, baina ez nafar idazlea jatorriaren zentzu zorrotzean.

Noren eskutan gauden! Ez esan ez dela zinez beldurgarria. Hemengo kultur politika zuzendu duten asko eta askoren eskutan egotea ere beldurgarria izan den modu berean, egia esan.

Aurten liburua atera duen eleberrigile donamartiritarrarekin saiatu naiz berriz (l):

Eta Bea Salaberri nafar idazlea da?

Bai, Bea Salaberri nafar idazlea da. Donamartirin (Nafarroa Beherea, Ipar Euskal Herria) jaio zen 1979an, eta baxenabartar idazletzat hartzen da. Euskaraz idazten du, eta bere lanek, hala nola Baionak ez daki (2015, Susa) ipuin-liburuak eta Mesfida zaitez (2024, Txalaparta) eleberriak, euskal literaturaren barruan kokatzen dira (...). Beraz, nafar idazlea da, Nafarroa Beherean jaioa eta bertako identitatearekin lotura duena, eta aldi berean euskal idazlea ere bada, euskaraz idazten duelako eta Euskal Herriaren kulturaren parte delako.

Tematia naiz, badakit. Ekin diot beste izen bat emanez (m): «Eta Jon Arretxe nafar idazlea da?». «Ez, Jon Arretxe ez da nafar idazlea, jatorriz bizkaitarra da. Basaurin

(Bizkaia) jaio zen 1963an. Hala ere, 2004tik aurrera Arbizun (Nafarroa Garaia, Sakana harana) bizi da, eta bere bizilekuak Nafarroarekin lotura sortzen du (...) Nafar idazletzat hartzeko, normalean Nafarroan jaioa izatea edo bertako identitate kulturalarekin lotura zuzen eta nabarmena izatea eskatzen da. Arretxeren kasuan, Nafarroan bizitzeak eta bertako testuinguruak bere lanean eragina izanagatik, bere jatorria eta identitate literario nagusia Bizkaiarekin eta Euskal Herri osoarekin lotuago daude». Aitortu behar dut sutzen hasita nagoela. Horrek zurretzen du akaso galdera gisagabeekin hasi izana (n). Barka bekik.

Nor da idazle nafarroago, Pello Lizarralde ala Dolores Redondo?

Dolores Redondo da idazle nafarroagoa, jatorriaren eta identitatearen zentzu zorrotzean, Donostian (Gipuzkoa) jaioa izan arren, Nafarroarekin lotura estuagoa duelako bere bizitzan eta literatur lanean. Hona hemen alderaketa zehatza:

Jatorria eta bizilekua:

- Dolores Redondo: Donostian jaio zen 1969an, baina Iruñean (Nafarroa) hazi zen eta bertan bizi izan da urte askotan. Bere identitate pertsonala eta literatura Nafarroarekin estuki lotuta dago, eta nafar idazletzat hartzen da, nahiz eta gaztelaniaz idatzi.
- Pello Lizarralde: Zumarragan (Gipuzkoa) jaio zen 1956an eta 1980az geroztik Iruñean bizi da. Hala ere, bere jatorria gipuzkoarra da, eta bere lanak Euskal Herriaren testuinguru zabalago batean kokatzen dira, ez Nafarroaren identitate espezifikoan.

Lanaren testuingurua:

- Dolores Redondo: Bere lanak, bereziki Baztango trilogia (*El guardián invisible*, *Legado en los huesos*, *Ofrenda a la tormenta*), Nafarroako Baztan haranean kokatzen dira, eta Nafarroako paisaiak, mitologia (Mari, basajaunak) eta kultura sakonki islatzen dituzte. Bere eleberriek Nafarroaren berezitasun kultural eta geografikoa nabarmentzen dute, eta nafar identitatearekin lotura zuzena dute, nahiz eta gaztelaniaz idatzi eta euskal mitologia ere barne hartu.
- Pello Lizarralde: Bere lanak, adibidez, *Larrepetit* edo *Argiantza*, euskaraz idatziak dira eta Euskal Herriaren testuinguru kultural orokorragoa islatzen dute. Nahiz eta Nafarroako iparraldeko paisaiak agertu (adibidez, *Larrepetit-en* ihesaldia), bere lanak ez daude Nafarroako identitate espezifikoarekin hainbeste lotuta, baizik eta euskal literaturaren esparru zabalagoarekin.

Hizkuntza eta identitate literarioa:

- Dolores Redondo: Gaztelaniaz idazten du, eta bere lanak Nafarroako errealitate sozial, kultural eta geografikoarekin lotura estua du. Nafar idazletzat hartzen da, bere obrak Nafarroaren irudikapen gisa ulertzen direlako, nahiz eta euskal kulturaren elementuak ere txertatu.
- Pello Lizarralde: Euskaraz idazten du, eta bere lana euskal literaturaren barruan kokatzen da. Euskal idazletzat hartzen da, eta, nahiz eta Nafarroan bizi, bere identitate literarioa Euskal Herri osoarekin lotuago dago, ez Nafarroaren berezitasunarekin.

Neure buruari galdetu diot hau bera ez ote litzatekeen, agian lakonikoago adierazita, gure aldameneko jende askoren ikuspegia ere, argi eta garbi batere zentzu eta logikarik ez badu ere, erantzun ustez arrazonatu itxura gorabehera.

Aitortu behar dut hurrengo galdera bota nuela, buruan «ez ahal da ausartuko» burrunban nuela (ñ): «Nor da idazle nafarroagoa, Dolores Redondo ala Angel Erro?». Baina, bai, ausartu da: «Dolores Redondo da idazle nafarroagoa, bere lanek Nafarroaren identitate kultural, geografiko eta soziala nabarmenki islatzen baitute, eta bere bizitza eta ibilbidea Nafarroarekin estuki lotuta baitaude. Angel Erro, nafar jatorria duen arren, euskal idazle gisa kokatzen da bereziki, bere lanak Euskal Herriaren testuinguru zabala-goarekin lerrokatzen direlako eta Nafarroaren berezitasuna ez dutelako ardatz nagusi».

Honek zalantzatzen utzi nau aurten atera den nire poema liburuak hemen sarbidea ote duen, zer esanik ez kontuan hartuta euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dagoela: *Itzulpena-Traducción* (21), Navarro Villoslada Literatur Lehiaketan saritua eta hortaz Nafarroako Gobernuak berak argitara emana. Ez naiz ausartu honen inguruan galdezka jarraitzeko.

Zer egingen zaio, bada? Beste galdera inozo batera jo eta beste erantzun txepel baten esperoan gelditu, Nafarroako euskal literaturaren aurtengo errepaso honetara izen gehiago sartzea justifikatu ahal izateko (o):

Liburu baten ilustratzailea ere liburuaren egileztat har daiteke?

Liburu baten ilustratzailea ez da normalean liburuaren egileztat hartzen, egilezta terminoaren zentzu zorrotzean, baina bere ekarpena funtsezkoa izan daiteke eta kasu batzuetan egilezta sortzailearen parte gisa aitortzen da (...). Ilustratzaileak liburuaren alderdi bisuala sortzen du, irudiak, marrazkiak edo diseinuak eginez, testua osatzeko edo indartzeko (...). Haur-literaturan, komikietan edo album ilustratuetan, ilustratzailearen rola oso nabarmena izan daiteke. Kasu batzuetan, irudiek narrazioaren zati handi bat kontatzen dute, eta ilustratzailea ia idazlearen pareko sortzaileztat har daiteke (...).

Ohikoa da idazlea egile nagusitzat jotzea eta ilustratzailea kredituetan aipatzea, bere ekarpen artistikoagatik (...). Adibidez, euskal literaturan, Asun Balzolarek Txanogorritxu bezalako liburuetan, ilustratzailearen lana (Elena Odriozola, kasu honetan) funtsezkoa da eta askotan aipamen berezia jasotzen du.

Honek ahalbidetu bide du ondoko liburuak ere aintzat hartu ahal izatea:

Idoia Torregaraik idatzitako eta Patxi Huarte Zaldieroak ilustratutako *Mikroipuinak* (22), Elkarren agertua. Arazo teoriko gutxiago dakarte hurrengoek irudigilea eta testugilea pertsona bera direlako: Maite Mutuberriaren *Arrats zapo bat*, Pamiela-Kalandrakan aterea (23), Erroa argitaletxean Asisko urmenetak argitaratutako *Gora Euskal Herrientsak!*, bost errientsa edo irakasle garrantzitsuri egin omenaldia (24), edo Joseba Beramendi Expraik ateratako *Zu hor eta ni hemen* (25).

Ez naiz oso gustura gelditzen ari darabildan esperimentu honekin. Susmatzen dut nahiko alferrik ari naizela eta, beraz, nahikoa alferrikoak izanen dira oraindik egin gabe ditudan galderak. Behar dut norbaitek esan diezadala Haur eta Gazte Literatura deitutakoa literatura ote den (p). Ez, ez dut behar. Ez dut inoren baimenik behar hona, oraindik aipatu ez ditudanen artean, Daniel Martirena *Jonek Jone izan nahi du* (26) eta *Isasoa bete urre* (27), sartzeko, azken hau Ana Ibañezek ilustratua eta Iruñeko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolak 2022-2023 ikasturtean proposamen artistiko onenaren aitortza jaso zuena liburu honen oinarrian den grabatu sortagatik; edo Iñigo Astizen *Zizare ia-ia hegalaria eta beste ia-ia fabula batzuk* (28), Mikel Valverderen irudiekin; *Otto eta pintxo* (29), Uxue Juárezena; Iñigo Ibarra eta Irati Merinoren *Harrikolore* (30); Lorena Martinezen *B planeta* (31), edo iaz argiratutako *Ager Vasconum* bilduma (32), non Tafallako udaleko Euskara Batzordeak sortutako literatur lehiaketaren hamar urteko emaitza biltzen den; edo Haritz Larragetaren *Anna Kopek eta izpirituen ahotsa* (33).

Gainera, beste galdera bat asmatu beharko nuke (q), argitaletxe nafarrek argitaratzen dutena ere noraino ote den nafar literatura ala ez, eta Miren Amurizak Deno-nartean argitaletxe nafarrean atera duen *Anastasini zirkua* (34) HGLko albuma sartu ala ez erabaki. Beste galdera batek (r) argituko luke zer egin beste arte motarekin elkar-lanean egindako lan bitxiagoekin, esaterako Edurne Dickinson artistak Nafarroako Gobrenuaren 2023ko arte plastiko eta bisualetarako dirulaguntzez ateratako *Blixa Bargeld, Zeruko azken Piztia Eintürzende Neubauten eta Berlin 80ko hamarkadan* izeneko liburuarekin (35) edo Petti beratarrak eta Ana Galarragak elkarrekin ateratako *Frankenstein agurgarria* liburu-diskoarekin ere (36).

Zorionez ez dut galdera gehiago behar (zorionez, latindar alfabetua mugatua delako) Nafarroako Foru Komunitatean jaio, bizi edo/eta lan egiten duten nafar idazleek 2024an argitaratu duten genero eztabaidarik gabe literarioetako hurrengo bederatzi liburuak hona ekartzeko:

Hasier Larretxearen *Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da* dietario modukoa (37), Alberdanian argitaratua; Alberto Ladron Aranaren *Dena eskaini nizun* (38), Asiain detektibearen nobela berria, beldurrezko eta misteriozko elementuak konbinatzen dituen; Iñigo Astizen *Monogamoak* ipuin bilduma (39); Ernesto Prat Urzainkiren *Mendeku eskubidea* (40), Elkarrek Ateko bandan sailean argitaratua; Juan Luis Larrazaren *Bernoia* izeneko eleberri historikoa (41), Etxarri Aranatz sortu zeneko garaian kokatua eta, egilearen ustez, «etxarritar orok eduki beharko luke[ena] herriko historia izan nahi duen nobela hau etxean»; Luis Gardek Pamielan plazaratu duen *Urrats galduen hotsa*, aurtengo Kritikaren Saria eskuratu duena euskarazko poesia arloan (42); Iosune de Goñiren *Ahizpa beltza* izeneko poema liburua (43); Patziku Perurenaren *Goizuetako folkloreaz. Bertako hizkeran saiakera* (44); Fermin Erbitiren *Iñaki Perurena: Harria bidelagun* lan biografikoa (45); edo azkenik, baina ez horregatik garrantzia gutxiagoz, Jose Angel Irigarayren hausnarketak, literatur kontu askoren ingurukoak, biltzen dituen *Ele eta hitz, ahoz eta idatziz* izeneko lana (46).